

Maite Quintanilla Lete

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1989)*

Aurkibidea

Biografia



1989ko apirilaren 15ean jaio zen Maite. Gurasoak Soraluzekoak ditu, eta bi ahizpatan zaharrena da bera. Hezkuntza kontuetan interes handia du, eta batez ere hezkuntza ez formalaren eremuan lan dezente egindakoa da. Soraluzeko Kukumuxo Aisialdi taldeko kidea izan da taldearen sorreratik. Elkarrizketa egin genion garaian, Kanboko kolegioan ari zen lanean hezitzaile moduan.

Zintak

SOR-098

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Data:** 2015-12-23
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Auzoan elkartzen ziren gehienbat

- **Erref:** SOR-098/002
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Bera estazio gaineko etxean bizi zen, eta bertako umeak elkartzen zirela kontatzen du, adin ezberdineko umeak. Euskeraz egiten zuten euren artean.

2. Soraluzeko ikastolaren desagertzea

- **Erref:** SOR-098/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ikastolako oso oroitzapen onak ditu, baina eskolarekin elkartu zituztenean giro erdaldunagoan murgildu ziren. Hala ere, D eredukoak eta B eredukoak bananduta mantendu ziren.

3. Dantza-taldea ikastolan bertan

- **Erref:** SOR-098/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Jende asko zegoen herriko dantza-taldean. Harremantzeko modu egokia eta euskalduna zela dio Maitek.

Transkripzioa

- Nik ez dakit zenbat urtekin hasi nintzan dantza taldean, baiña ikastolan neuan, eta gaiñera... bai, txikitxua nintzan eta hor ikastolako ba lehengo gimnasixuan-eta gogoratzen dot. Eta genden jente pila bat, osea, ume pilla bat, gazte pilla bat... Eta igual bazan be bai beste jente batekin harremantzeko gune bat edo, ba, beste adin bateko jentia, ba, igual kalia ez zenduana topo eitten. Euskeraz zan leku bat, ez dakit ondo pasatzeko leku bat... Nik hamabi urtera arte uste dot jarraitu nebala dantzan; gero, ba, bueno, futbola ez dakit zer, eta ya aukeratu in bihar zan. Baiña bai, ez dakit, pozik juaten nintzan leku bat. Eee.. Uste dot herrixan be bai jente askok jarraitzen zebala gune hori eta ez bakarrik guraso euskaldunak genkanak, beste inguru bateko jente batek be bai. Eta, bai, ez dakit, aisialdi bat euskeraz zana eta, bueno, azken fiñian be bai, ba, hemengo kultur transmisioño batekin edo hemengo dantzak ikasten edo...

4. Futbolearen Bergara

- **Erref:** SOR-098/006
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:08:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Ludotekara sarritan joaten ziren. Musika eskolan eta igeriketan ere ibili da Maite.

5. Ludotekaren garrantzia

- **Erref:** SOR-098/008
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:08:22. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ahal zuen guztietan joaten zen Maite ludotekara. Egun puntualetan kalera irteten ziren ekintzak burutzera. Euskaraz gogoratzen du bere haurtzaroa, ludoteka barne.

6. Hizkuntza hautuak herrikideekin

- **Erref:** SOR-098/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:10:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Pertsona jakin batzuekin gaztelaniaz egiten zuela dio, baina orokorrean euskara dela naturalen sentitzen duen hizkuntza.

7. Kale-inkestak egiten ibilia

- **Erref:** SOR-098/011
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskara batzordean biltzen ziren jolasorduan. Euskararekiko kontzientzia piztu zitziaon unea izan zen hau. Beranduago, kale inkestak egiten hasi zen Pil-Pilean taldearekin harremanetan.</p>

8. Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide

- **Erref:** SOR-098/012
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskal Herrian Euskaraz taldean gazteenak zirela gogoratzen du. Sorluzeko anbulategirako mediku euskaldunak lortzea izan zen orduko borroka nagusietako bat. Antzerki bat ere aurkeztu zuten herrian, euskararen inguruko kontzientzia pizteko.</p>

9. Ikasketa ibilbidea: Heziketa Berezia eta Antropologia

- **Erref:** SOR-098/013
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Elgoibarren egin zuen Batxillergo zientifikoa. Ikasle mugimenduan murgildu zen bertan. Ondoren Heziketa Berezia ikasi zuen Donostian, eta bukatutakoan, Saharan egin zituen praktikak. Bueltan, Antropologia ikasketak hasi zituen Pil-Pilean euskara elkartean lanean hasteko.

10. Pil-Pilean euskara taldeko langile

- **Erref:** SOR-098/014
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:18:03. **Bukatu:** 00:22:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia

Laburpena:

<p>Pil-Pilean Euskara Elkarteko koordinazioan, haur eta gazte sailean, euskalgintzan eta kultura sailean ibili zen. Kukumixo aisialdi taldearen sorreran ere ibili zen Maite. Hasiera batean gazteekin hasi ziren, udaleku ibiltariak sortuz. Ondoren, umeekin ere hasi ziren.</p>

11. Kukumixo Aisialdi Taldea

- **Erref:** SOR-098/015
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:22:41. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>Kukumixo Aisialdi Taldea. Zazpi urteren buruan asko zabaldu da taldearen fama. Begiraleen artean ere aniztasun handia dago adinari dagokionez.</p>

12. "Euskararen eremuan erronka hazi egin da"

- **Erref:** SOR-098/016
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaur egun modu naturalean euskaraz egitea zailagoa da, are gehiago hori transmititzea.

13. Hizkuntzaren antropologia: Maitek egindako proiektua

- **Erref:** SOR-098/018
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:28:32. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Umeen gaztelaniarekiko joerak kezka piztu eta hizkuntzaren antropologia aztertzeari ekin zion. Gazte perfilak sailkatu zituzten hizkuntzaren faktorearen arabera.

14. Gazteen euskararekiko pertzepzioa

- **Erref:** SOR-098/019
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Maitek gazteen hizkuntza hautuak aztertu zituen, eta kontzientzia falta nabarmena topatu zuen.

15. Parrandak Soraluzen

- **Erref:** SOR-098/021
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:36:04. **Bukatu:** 00:37:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Gaur egun Eibarrera juergan joateko joera aipatzen du Maitek. Parranda euskalduna erronka bat dela dio.

Transkripzioa

- Gu hemen, gu hemen baiña bai ikusten dot gu baiño gaztiauak asko jotzen dutela Eibarrera edo beste inguru batzuetara.
- Eta bertako herriko girua, musika aldetik eta...?
- Segun lekua. Gero.. ba, karo, eske gero gazte guztiak nun sartzen dira? bolian, eta bolian oso zaila da euskal musikia entzutia. Osea, gehixau da reggetoia eta, hori, ba, entzuten dan hori. Orduan, karo, hor be gero Galtzagorrixetan-eta be bai ibili izan naiz eta hor bai zen beste erronka bat, ez? Ba, bengia, goazen karnabalak holako jai egunetan behintzat hemen eustera jente hori. Ba bai gure artian harremantzeko, baiña be bai ba sortzeko juerga bat baiña euskeraz dana eta gure giruan dana. Eta hor, uff.. gero segun. Batzutan, gero hemen daguan beste fenomeno bat da, oin lokaletan sartzen dirala, eta hor oindiok zaillagua da hor sartzia. Eta hor, karo, hor entzuten dabe ya eurak aukeratzen dutena eta..

16. Lokala gora, lokala behera

- **Erref:** SOR-098/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:01. **Bukatu:** 00:38:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Aisia

Laburpena:

Frontoian egoten ziren beraien arratsaldetan, baita okupatutako eraikin batean ere. Gaur egun aldiz, gazte gehienek lokala dute, eta handik ateratzea oso zaila dela dio Maitek.

Transkripzioa

- Lokalan konturik bizi izan dozue edo...?
- Gurian egon zan, ba "Benga, nahi dou lokala, ez dakit ze", baiña gu frontoian egoten giñan. Eta gero bai in genduan, ikastola azpiko... oin ya ez dau, oin haurtzaindegixa dauan leku horretan zeren... ee... zela da? Eee.. ginasian-eta erabiltzen... Bueno aldagelak!
- Bai, aldagelak.
- Horrek okupau in genduzen. Gero bota in ginttuen eta holan, baiña bueno. Eta hor hola. Ba, bihar genduan leku bat berotan egoteko eta apurtu genduzan atiak eta han sartu giñan. Bai, hori in genduan. Baiña gaur egun da danak ya lokala eta... Eta gero, ba, hori, Gaztelekuan be bai pasatzen jakun, osea, ya zailla zala... sartzen badira lokaletan, gero berriro ataratzia... ez bada...
- [...] eremu bat igual galtzen da, ezta?
- Bai.
- Badauka, bueno, kuadrill... talde... zure taldetxo identidate hortan bai sendotzen zara, baiña gero...
- Karo.
- ... aislatzeko puntua be bada, ez? Igual kanpora begira edo...
- Bai, ta gero eurak be bai kritikatzan dabe hori, e, "Bai, askotan ez gara harremantzen ez dakit zer... Orduan, da be bai topatzia... jo, ba, igual in bihar da lokalen arteko gauzak eta. Ez dakit, beste saltsa bat sortu bihar da hor, osea, pixkat harremanian ipintzeko eta... eta hori, harreman hori be euskeraz sortzeko ahal bada.

17. "Lokalak aislatzen gaitu"

- **Erref:** SOR-098/024
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia

Laburpena:

Lokalaren prestigioaz dihardu Maitek.

18. Adin nahasketa eman al da Soraluzen?

- **Erref:** SOR-098/026
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:40:41. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia

Laburpena:

<p>Kukumixo Aisialdi Taldeak gune intergenerazional bat ematen die gazteei. Ostegunetako pintxo-poteak ere antzeko indarra izan du.</p>

19. Soraluzeko euskara aldatu al da?

- **Erref:** SOR-098/027
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Etiket erdaldunak diren umeak dira nagusi herrian. Ume batzuk batuan entzun izan ditu Maitek, eta hau eskolaren eragina izan daitekeela dio. Beste gazte batzuek, ordea, euskalkia erabitzen ere badakite.

Transkripzioa

- Gero ya... ya pixkat konkretua, Soraluzeko euskeria eta, zuk ikusten dozu aldaketarik zure zaharrauek nola itten daben berba edo zuk nola itten dozun berba edo txikixauetan nola ikusten dozun... aldaketarik bai?

- Jo, nik igarri dotena da azken urtietan, ez igual askotan... Karo, gero begiratu bihar da be bai gurasuak: zenbat ume edo gaztek dauken gurasuak... bueno, bixak euskaldunak diranak da oso ehuneko txikixa; bat euskalduna bada, bueno, baiña gero ikusi biha da be bai etxian ze giro dauan, ez? Eta gero, askonak dira bat bez ez dala euskalduna, osea, hori...

- Bertakua izatia.

- Bai, bai, hori da.

- Esan nahi dot, euskaldunak gehi Plaentxiakua.

- Hori da.

- O Bergarakua edo, osea ez... aldaketa ya hortik etortzen da.

- Bai, hortik dator, baiña ez bakarrik kanpoko etorkiñak e, osea askotan be bai, ba, bueno, garai baten etorri zianak Españiako beste leku batzuetatik. Ta, karo, orduan, oso etxe gutxi dia nik uste dot euskeraz eitten dutenak euren artian, ta, karo, hor doia be bai hizkuntzan transmisiñua, hizkerana, euskalkixana ta gauza askona. Baiña gero bai harritzen dosta, hori, dauz ume batzuk derrepente igual batuan entzuten dittuzunak, eta igual hori lotu ahal da be bai, ba, guk ikastolan egonda, hemengo irakasliak.... ez dakit hemengo irakasliak genkazen eta, orduan, hemengo euskalkixa be bai transmititzen zan hein baten. Eta gaur egun, ba, da, ba, bata donostiarra bestia ez dakit nungua... nik uste dot horrek eragiña daukala eta, orduan, ba, ume askok euskeraz eskolan ikasten dutela, ze kalia ba ya askok be ez. Baiña gero, kuriosua da, ze ni gaztiekin eta egon nintzan gazte guztiekin, nahiz eta bi gurasuak erdeldunak euki erdel... giro erdeldun baten ibili lagunartian, danak dakixe plaentxiarrez; ez igual ondo, igual aditz guztiak ba nik pe ez, igual ez douz danak ondo erabiliko, baiña euskal... osea, ez dabe itten batuan. Batzuk bai, e, badare hola banaka batzuk, baiña gehixenak euskalkixan. Eta, orduan, nik esaten neban "Joe, ez dabe eitten eren artian euskalkixan, baiña gero, euskeraz... baiña gero euskeraz itten dutenian, badakixe euskalkixa". Orduan, hor nunbaitten

zeoze jasotzen da, osea, ez dau dana galduta bez. Ez dakit, hori da pixkat positibuan ataratzen nebana.

20. Hitanoa: mutilen artean batez ere

- **Erref:** SOR-098/028
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:44:58. **Bukatu:** 00:47:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Etxean amak hiketa erabiltzen du senideekin, baina orokorrean galtzen ari den ezaugarria dela dio Maitek.

Transkripzioa

- ... Zure lagunartian eta, hiketan edo hika berba eitteko ohitturarik... bai... ez...?

- Keba.

- Jaso dozu... badakizu honek hala eitten daben eren artian edo badaukazu referentziarik eta..?

- Jo, nik hor daukat kriston penia, ze ni ez naiz gai; idazteko igual, ba, denpora pixkatekin eta pentsauta, baiña gero... puff... hola, harremanetan, ez. Gero nik bai, ba, lagunartian, batez be mutillen artian, badauzkat batzuk, ba, ez dakit, ba, Eneko eta Gotzon euren artian edo Egoitzek batzuekin be bai... Gero, Arianne eta honek be entzun izan dittut hikan euren artian. Eta gero, ba, nik etxian nere ama, nere ama nere ana... beran ana... osea, nere tiokin eta hola edo bere lehengusuekin edo hola. Ta, jo, nik askotan esaten dotsat "Ein neri be bai, eske bestela ez dou ikasiko" ta, gainera, hori bai ikusten dot, adibidez, galtzen. Galtzen, galtzen. Ze eskolan, ni akordutzen naiz esaten zoskuela "Bueno, hau ez da inportantia" ta, jo, ez da inportantia... ba, ez dakit, hurbilleko tratu baterako eta... ez dakau, nik ez daukat registro hori, eta ni baiño gaztiauak gutxiau.Oseaa...

- Eta edadeko pertsoneri eta, ez dakit, kalia-edo somatzen dan hika berba itteko joerarik...

- Batzuk entzuten dira, e! igual ni be fijatzen naizelako hortan, baiña, hori, ba, ya ze? hirurogeitik gorako jentia? ta hortik azpira... Gero, ba, gazte batzuk, ba, igual ein dutenak ahalegiña... "benga", baiña ahalegin bat da, osea, ez da berez jaso dogun zeoze. Gero ein zan hemen oin dala urte batzuk hikan ikastaro... hitanuan ikastaro bat eta ez dakit zer, eta batzuk ibili ziran. Ta gero, ordutik, ba, hor topo in zebe batzuk eitten dabe euren artian, baiña puff... pilla bat kostatzen da, e. Ta kriston penia da.

- [...]

- Bai, ze ez da iguala... ba, ez dakit, ba, Azpeittin igual zuk ezagutuko dozu beste... baiña hemen... bai. Ta nik kriston penia daukat horrekin, e.

- Bai, bai, egixa da, igual gurasueri entzun bai eta hortik jasotzen dozu, [...] baiña gero norberak eitterako ez baldin badauka, ez baldin badau euki aukerarik eitteko... ostras!

- Bai.

- [...] badaukat, baiña gero...

- Gero falta da, bai.

21. Gaztetxearen presentzia herrian

- **Erref:** SOR-098/030
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:48:51. **Bukatu:** 00:51:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak

Laburpena:

<p>Gaztetxeak azken urteetan indarra galdu duela dio Maitek. Egunerokotasunean jendea mantentzea kostatzen dela dio, oso gune euskalduna dela, eta jaietan jende mugimendu handia duena.</p>

22. Herriko arnasguneak

- **Erref:** SOR-098/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:53:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Euskara modu naturalean bizi duten eremuak izendatzen ditu Maitek: Kukumixok sortzen dituen guneak, Pil-Pilean, Musika Eskolaren ingurua eta dantza taldea, bertso eskola, gaztetxea...

23. Soraluzetarrak: xelebreak eta parte-hartzaileak

- **Erref:** SOR-098/034
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:53:59. **Bukatu:** 00:55:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Xelebreak, umoretsuak direla dio Maitek Soraluzeko herritarrak. Naturaltasuna galtzen ari direla ere aipatzen du.

24. Herriko egoera irauli nahian

- **Erref:** SOR-098/035
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:55:39. **Bukatu:** 00:56:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen egoerari buruz ari da Maite pasarte honetan. Hamar urtetan euskararen erabilera asko jaitsi dela kontatzen du.

25. Herritik ateratzeko beharra sentitu zuen

- **Erref:** SOR-098/036
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:56:42. **Bukatu:** 00:58:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Iparraldera joan zen Maite lanera, Sehaskan eta hezitzaile moduan.

26. Hizkuntzaren arazoa Iparraldean

- **Erref:** SOR-098/037
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:58:12. **Bukatu:** 01:00:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beste kontzientzia bat sumatzen du Maitek hizkuntzaren gaia lantzean. Eredu euskaldun bakarra Sehaska izatean umeei zailtasunak dituztela dio.

27. Masifikazioa etsai

- **Erref:** SOR-098/038
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gazte mordoa dago eskoletan, eta erronka eskola berriak sortzea dela dio Maitek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com